



Eliz musika gaur, Kantuz eta Aiztondo abesbatzen eskutik

ELIZ musika entzuteko aukera izango da gaur Hernanin, Kantuz Abesbatzak eta Astigarragako Aiztondo Abesbatzak kontzertua emango baitute. Arratsaldeko 19:00etan izango da Milagrosan. Denera 13 abesti abestuko dituzte Igor Arroyok zuzenduta. Kantuzek 7 kantatuko ditu: *Heleluyam, Signore delle cime, Eli, Eli, El cant des ocells, Si el mon es ple de gebre, O vos omnes* eta *Altxa Pello artzaia*. Aiztondok, berriz: *Weep, o mine eyes, Cantate Domino, Gabaren erdian, White Christmas, Festejos de Navidad* eta *Suite comercial navideña*. ||

Martxa Martutenera gaur, preso eta iheslarien eskubideen alde

AMNISTIAREN Aldeko Mugimenduak deituta, Gabonetan ekimen ezberdinak izango dira Hernanin, preso eta iheslarien eskubideen alde. Gaur, esaterako, Martuteneko espetxera martxa egingo da. Astigarragako poligonotik (Biurrarena) abiatuko dira goizeko 11:00etan. Beste zutabe bat Donostiatik abiatuko da, eta epetxean ekitalditxo bat egingo da. Preso eta iheslarien eskubideen alde, Gabonetan ere mobilizazioetan parte hartzeko dei egin diete hernaniarrei. ||

◆ FUTBOLA

Hernanik 2-1 galdu, Real Unionen aurka

Erregional Ohorezko mailako taldeak herenegun jokatu zuen Real Unionen aurka eta 2-1 galdu zuen. ||

❖ ZINEA

'Guru, mi villano favorito' ikusgai gaur eta bihar

Biterin, *Guru, mi villano favorito* emango dute publiko guztiarentzat, gaur eta bihar 17:00etan. ||

❖ UDALA

Lehenengo aldiz, hiru udal etxebizitza alokairuan

Udalak hiru udal etxebizitza alokairuan jarriko ditu, lehenengo aldiz, «alokairuzko udal etxebizitza politika bultzatzeko asmoz». Laster beste hainbat etxebizitza ere merkaturatuko ditu. /2

❖ HAMAİKABAT

«Arau Subsidiario hauek etxebizitza librearen aldeko apustua egiten dute»

Hamaikabat alderdiak salatu du behin behinean onartu berri diren Arau Subsidiarioek etxebizitza librearen aldeko apustua egiten dutela, besteak beste. /2

GAUR KRONIKAN

LABURRAK: saskibaloia, Ezker Abertzalea, egutegia /2

Jasota Bezala: Pakito Lujanbio, Euskal Preso Politikoa /2

Eskelak /7

'Ornitorrinkus' /8



Umeez, gozo hartu zuten Olentzero

EGURALDI hotzarekin, ongi-etorri beroa egin zioten Olentzerori, Hernaniko umeez, atzo. Opariz gainezka iritsi zen Olentzero, *Kottonio* astoa lagun zuela, eta poz-pez sartu zen Hernaniko Plazan, gozo hartuko zutela bazekielako. Bai hartu ere! Plaza bete ume eta guraso zituen zain, aurtan zer opari ekarriko jakinminenez. Karrozan eman zioten Kaxkoari buelta, gaztaina eta karamelo banatzen. Buelta emanda, Udaletxera sartu eta banaka-banaka elkartu ziren ume guztiak Olentzerorekin, eta han egin zuten opari-tratua. Eurek jakingo dute zertan geratu ziren! /6

IBILKOM

KARROZERIA

IBILGAILU INDUSTRIALAK

TURISMOAK ETA FURGONETAK

KARROZATUAK

TXAPA - PINTURA
BEIREN TINTATZEA
IBILGAILUEN ROTULAZIOA

NEW AUTOCOLOR



KAMIONETAK
BOLKETEAK - GRUAK
ISOTERMOAK - HOTZ EKIPOAK

amegar
otxo tresnak - altzarriak

Zatoz!
eta aurkitu
behar duzuna

Txirrita kalea, 13-15
Tel.: 943 55 11 25
Faxa: 943 55 16 03



Hotz gailuak
Izotz gailuak
Labeak
Garbigailuak



Punta-puntako markak

❖ UDALA

Udalaren hiru etxebizitza alokairuan, aurreneko aldiz

Laster beste hainbat etxebizitza ere merkaturatuko ditu Udalak, «alokairuzko udal etxebizitza politika bultzatzeko».

LEHENENGO aldiz, hiru udal etxebizitza alokairuan jarriko ditu Udalak Elizatxo, Elcano eta Victor Hugon. Hala adierazi du: «Herrian etxebizitzak izugarri garesti daudenez eta etxebizitza izateko eskubidea bermatzea zaila denez, Hernaniko Udala kezkatua dago aspaldi. Horregatik, udal etxebizitzak alokairuan jartzeko politika garatzen hasi da eta aurrerantzean horren aldeko politika sendoa egingo du». Hori horrela, jakinarazi du lehenengo urratsa Udalaren hiru etxebizitza alokairuan jartzea izango dela eta Txantxillako etxeak bukatzean, Udalarenak diren 10 etxebizitzak ere alokairuan

jarriko dituztela.

Elizatxon, Elkanon eta Victor Hugon dauden hiru etxebizitzak, behar gehien duten hernaniarren artean zozketatuko ditu Udalak. Parte hartzeko eskaera bete behar da udallexean, zenbait baldintzarekin: eskaera egin aurretik Etxebideren zerrendan izena eman behar da; Hernanin azken bi urteetan jarraian erroldatuta egon behar da edo azken hamar urteetan bost urtez; eta urteko diru-sarrerak 12.000 eta 45.500 euro artekoak izan behar dute. Udalak 5 urtez utziko ditu etxeak. Epea beste 3 urtez luzatzeko aukera izango da. ||

❖ HAMAIBAT - Prentsa oharra

«Arau Subsidiario hauek etxebizitza librearen aldeko apustua egiten dute»

«Karabel-Portu gunean gertatuko dena da nabarmenena. Babestutako 200 etxebizitza baino gehiago galduko dira», dio H1!-ek.

HAMAIBAT alderdiak behin behinean onartu berri diren Arau Subsidiarioei buruzko prentsa oharra bidali du Kronikara eta salatu du etxebizitza librearen aldeko apustua egiten dela bertan. «Baina ez gara harritzen, urteetan berdina egin baitute ezker erradikaleko gobernu ezberdinek. Baina Ezker Batuaren jarrera ulertezina da». Hala azaldu du: «Plan berrian babestutako etxebizitzaren alde atzera pauso bat eman da. Nabarmenezkoa da Karabel-Portu gunean gertatuko dena. Eusko Jaurlaritzaren azterketa hidrologikoak bertan eraikitzeko

trabarik ez du jarri. Gobernu Talde honek gunearen zati bat bakarrik urbanizatzea erabaki du. Hernaniarrentzat komeni da gune guztia klasifikatzea urbanizagarri gisa eta hau zen aukera. Karabel-Portuko antolamendu berri honekin, Hernanin babestutako 200 etxebizitza baino gehiago galduko ditu».

Eta salatu du Florida kalea erregeneratzeari uko egin zaio. «Bizitzeko guneak zirenak industria-gune bezala sailkatu dira berriz. Bestalde, positiboa iruditzen zaigu, Papelera del Norte eta Irrigoenea ez botatzeko alegazioak onartzea». ||

❖ SASKIBALDIA

Gabonetako Torneoa bihar eta etzi

Urtero bezala, Gabonetako Torneo jokatu da bihar eta etzi Hernanin. Saskibaloitako talde federatuek hartuko dute parte.

Bihar: 1go urteko kadeteak/La Salle, 10:15etan; 2garren urteko kadeteak/Atletiko San Sebastian, 12:00etan; jubenilak/Atletiko San Sebastian, 17:00etan. Etzi: minibuset mahaingurua 11:00etan; 2garren urteko kadeteak/1go urteko kadeteak, 17:00etan; eta jubenilak/seniorrak 19:15etan. ||

❖ EZKER ABERTZALEA

«Eskerrik asko Hernani legalizazioaren aldarrikapena zabaltzeagatik»

Hernaniko Ezker Abertzaleak hernaniarrei eskerrak eman nahi dizkie legalizazioaren aldarrikapena herriko txoko guztietara zabaltzeagatik. Hala adierazi du: «Eskerrik asko Hernani, katebegiz katebegi, osatu dugu soka, luzatu katea. Zorionak Hernani! Ezker Abertzalearen legalizazioaren aldeko aldarrikapena Hernaniko kale eta txoko guztietara zabaltzea posible egin duzuen guztioi. Eskaera hori lau haizetara zabalduz, kalejiran, jira eta bira ikusi genituen ilusioa, kemena, duintasuna, elkartasuna, gogoia, borondatea eta konbentzimentua ez dira makalak izan. Ezker Abertzaleko izan ala ez, ekimen honetan gurekin bat egin duzuen guztioi, bejondeizuela. Hauxe da bidea, egin dezagun bada aurrera!». Testua osorik dago hernanikoezkerabertzalea.wordpress.com helbidean. ||

❖ UDALA

Egutegiak eskuragarri

Urtero bezala, Hernaniko Udalak 2011ko egutegia kalera tu du, eta hernaniarrek eskuratzeko aukera dute Udallexetik pasata. Gai nagusia 1936ko Gerra da. ||

☞ Jasota Bezala

• Gutuna argitaratzeko ezinbestekoak dira: izen-abizenak, NAN edo EHNA zenbakia eta telefona • Gehienez 1.800 karaktere onartuko dira • Kronikak ez ditu bere gain hartzen sail honetan esaten direnak.

26 urte kartzelan

Gauza da, bisitetan eta hainbat preso sozialek ere, askotan galdetu izan didatela, "nola egiten da hainbat urte egoera hortan pasa eta buruz eta gorputzez hain osasuntsu egoteko?". Eta nola azaldu edo zer esan ere ez dut jakiten... Bestea zera da, hau ere bisitetan eta preso sozialek askotan galdetu didatela, "zenbat denbora daramak?", "Eta zenbat gelditzen zaik?". Eta bi galdera horiei erantzuna eman ondoren, gehienek antzekoa esaten didate: "Beno, zailena egin duk! Hainbeste egin ondoren, gelditzen dena hanka bakararen gainean, ezta?". Eta nik gehienetan, korrontea segitzen diet, baina, jakitun naiz, egindakoa, gehiago ala gutxiago kostata bada ere, eginda dagoenez orain zailena ez dela hori, baizik eta gelditzen dena... motzagoa izan arren! (...). Hemen kontuz harrokeriarekin, gelditzen denari beldurrik gabe, baina errespetuz beti ere, e!

I.- "Gatzak" kartzelan bete du jada hirugarren hamarkada, baina oraindik kaleratzeko jartzen diote hainbat traba etsaiaren jugada sortzea da ikara alde guztietatik kosk etsipenaren hatzparretan eror gaitzen guztioi. BIS

II.- Nola liteke hainbeste urte espetxean aguantatu? eta nahiz eta bizirik iraun nola ez garen zoratu? bisitetan galdetu azaltzen ez asmatu bada brometan dionik sartu aurretik zoroak ginen beraz zorutzen ez lanik. BIS

III.- Hau jasateko ez da asmatu mirarizko formularik nik behintzat ez dut horrelakorik inon topatu oraindik egunero komerik ez daukagu pakerik hau ez da matematika nahiz egunero egin kontuak ez galtzeko bane_oreka. BIS

IV.- Inondik ere preso gaudenok ez gara hain bereziak ez guztiok gure ditugu dohai eta gabeziak barnemin garrasiak edota fantasiak sufrimenduaz moldatzen hori dugunez edonork bezain gaizki metabolizatzen. BIS

V.- Espetxea da sufrimendua ta_egin behar zaio aurre Euskal Presoon Kolektiboan super_pertsonik ez gaude bakarrik da dolore laguntzarekin hobe zuena da hoberena ona den ere, hemen barruan gertu dauden kideena. BIS

VI.- Irakurketa edo kirola, ikasketak, eskulanak horrelakorik egiten dugu esango nuke nik danak osatuaz etapak ilusioz erabat kartzelan egonagatik, hemen barruan presook gaude kalean bezain bizirik. BIS

VII.- Pasa ondoren ez du ematen joana denikan luze nori ez zaio bizitakoa pasa azkar eta aixe egunak mila klase, bai poza, bai oinaze hala da gure kondena egindakoa eginda dago falta dena okerrera. BIS

VIII.- Bizikletari eragin gabe joan daiteke patxadaz aurretik hartuta dugunaren abailaren inertziak, baina hau ez da jolas beheruntz ez inolaz beti aldapa goraka eragitea utzi orduko erori_edo atzeraka. BIS

Pakito Lujanbio Galdeano
Euskal Preso Politikoa
2007ko abenduaz geroztik,
etxean egon behar nuena

TELEMAR

Elkano kalea 13 - Nagusia 7 - HERNANI -



Telefonikako banatzaile ofiziala

Orain Telemarren

Erosi eta plazoka ordaindu dezakezu, inongo interesik gabe, eta gainera, OTSAILETIK aurrera hasiko zara ordaintzen.

Ez galdu aukera hau!
aldatu zure elektrogailua edo telebista.

40 urtetik gora zure zerbitzura



GABONETAKO ZOZKETA 2010

"BERRIAK"
HERNANIKO MERKATARIEN
ETA OSTALARIEN ELKARTEA

Hemen dituzue zenbaki sarituak!

Hernanik
kronika



0.394 - KRONIKAN SALDUA

- HAIZEA KORTSETEGIA: 60€ko erosketa txartela
- MARNA KONPLEMENDUAK: Koilare eta erreztun konjuntua
- JAIONE KONGELATUAK: Iberiko sorta
- HOKI LENTZERIA: Emakumearentzat pijama
- OHIALA: franelazko maindireak
- URRATS ZAPATADENDA: Tuckland trekking zapatilak, gizonezkoentzat
- MARI FE ARRANDEGIA: 2kgko langostino kaja
- BALANTXA DVD 24ORDU: 29€ bono txartela dvdak alokatzeko
- BALANTXA CENOR: MP4a
- VALEN NOBEDADEAK: Umeentzako konjuntua
- KAIXO POLTSAK: Maleta handia (70cm)
- BOKBI OPTIKA: Ray Ban betaurrekoak
- OINDI TABERNA: Viña Real ardo kaja
- KERA: Emakumearentzat berokia
- JOXE MARI TABERNA: Marques de Arienzo kiantza ardo kanaeta 6 ardo kopa
- ANTZIOLA OKINDEGIA: 10 razioko errege tarta
- LA CASA DE ELAH: Gorputzerako eta etxerako produktu ekologikoen xestoa
- DORRONSORO: Hilabete osoan eguneko ogi bat



2.821 - BOKBI OPTIKAN SALDUA

- JAIONE KONGELATUAK: 2 Kilo langostino kaja
- BALANTXACENOR: MP3
- ANTZIOLA OKINDEGIA: 1 errege tarta 10 raziokoak
- DORRONSORO: Hilabetean eguneko ogi bat
- NEKANE ESTETIKA: Limpieza de cutis
- KIXKAL: Bierzoko magnum ardo sorta (Casar de Burbia, Hombros...)
- AITOR PEÑA: Olio sorta
- URBIETA KOPIAK: Bulegoko material sorta
- IBAI-MENDI: Mendiko bi makil
- ARROSAK: Gizonentzako kremak
- AMEGAR: DVD Blueray
- ALKORTA HARATEGIA: Eguberritako saskia (gazta, ardoa, olio...)
- URUMEA FERRETERIA: bi ardo kopa, dekantadorea eta bandeja
- PELISIMO: Fotodepilazio sesio bat eta krema
- IRIGOIEN OINETAKOAK: Etxeko zapatilak 2 pare, gizon eta emakumea
- TORRES: Prismatikoak
- LEOKADISTI: 2 Liburu, bat euskeraz eta bestea gaztelaniaz
- ADARRAGA: Etxeko turroi sorta eta Ana de Codorniu cava kaja



0.559

URUMEA BURDINDEGIAN SALDUA

- NEKANE ESTETIKA: Gorputz masajea
- ARALAR: Viña Real ardo kaja, kopak eta guzti
- MONICA: Emakumearentzat etxeko bata
- ILAZKI: Soineko bat
- ALTZARIAK ARREGI: Aulki bat
- AKEIT: Garagardo sorta
- PORTALONDO: Ardo botila, albuma eta kartera bat
- MITXEL KIROLAK: Lo zakua
- GALERIAS BUEN PRECIO: Cocktel jokoa
- DORRONSORO: Hilabetean eguneko ogi bat
- JAIONE KONJELATUAK: Iberiko sorta
- KAIXO: Giozon eta emakumearentzat larruzko karterak
- BODEGA: likore kaja
- TELEMARbainuko baskula digitala
- AURKI: Lamina enmarkatuta
- FELY HOGAR Y MODA: oheko koltxa

HERNANI BIDAIAK:

HOTEL VILLA DE LAGUARDIAra ESKAPADA

BI LAGUNENTZAT. GAU BAT + ONGI ETORRIKO AFARIA. - VILLA LUCIA ARDOAREN ZENTRO TEMATIKORA BIXITA. BODEGAREN BIXITA ETA ARDO DASTAKETA. WINE OIL SPA ZIRKUITUA.



1.756 - ZINKO-ENEA KIOSKOAN SALDUA

Eskerrik asko parte hartu duzuen guztioi!!



Duela hiru hamarkada, lehen aldiz, Urte Zaharreko errondan atera zen koadrila. (Oarso auzoan aterea; atzean Elur Txori elkartearen ikuspena da).

Urte Zaharreko erronda: urteurrenaren atarian

Ohiturak,
iraun, garatu,
aldatu, edota,
besteak beste,
galdu egin
daitezke. Baita sortu
ere. Duela hiru
hamarkada, herrian,
Urte Zaharreko
errondak lehen
urratsak eman
zitu.

Ezpala

ERRONDA sortzearen helburua, urteko azken egunean, herriko kaleak doinuaz, koplaz zein bertsoz janztea izan zen. Santa Ageda eta San Joan errondaren ildo beretik, 1980 urte aldera, herriko kaxkotik barrena kale buelta bat egitea deliberatu zen. «Gogoan dut Tiburtzio (Patxi) Odriozolaren kontua izan zela», esan du Bingen Zupiriak (Hernani 1961). «Patxi, behin hurbildu eta esan zidan: "Santa Ageda eta San Joan egunen bezperan herriko barrena irteten bagara, zergatik ez Urte Zahar egunean!" Lehen urterako koplak batzuk egin genituen. Hurren-

Bingen Zupiria: «Patxi, behin hurbildu eta esan zidan: "Santa Ageda eta San Joan egunen bezperan herriko barrena irteten bagara, zergatik ez Urte Zahar egunean!"».

goetarako Joxe Agustin Arrietari beste batzuk eskatu genizkion. Horrela sortu genuen hasierako koplak. Ni, orduan, Miren Etxanizekin batera aritzen nintzen trikitia jotzen eta urte batzuetan parte hartu genuen errondan», gaineratu du ETBko zuzendari ohiak.

Errondaren inguruko oroitzapen onak ditu Zupiriak. Irten aurretik eginiko

lana oso presente du. «Patxi Odriozolarekin koplak pentasatu eta osatzen nola ibili ginen, zer gai landu... Politza izan zen. Gogoratzen dut, behin eta berriz bakearen gaia ateratzen zela. Oso era naturalean egin genuen errondaren prozesu guztia. Hasierako urteetan, Oarso kaleko gela batean egiten genituen entseguak», erantsi du Zupiriak.

Ibilbide berbera

Urte Zaharreko errondaren ibilbidea, egungoa eta ordukoa, berbera da. Baita azken txanpa ere. «Zaharren Egoitzan hasten ginen. Garai hartan, Milagrosa elizaren atzealdean zegoen. Eta handik Plazara joan ondoren, kale buelta egiten genuen. Hau da, Plazatik Zinko-Eneara, eta Kale Nagusitik, berriz ere Plazara».

Lehen urtean, trikixaren doinuean, koplak kantari eman zuten parte hartzaileek kale buelta. Bertsolarien parte hartzea apur bat beranduago heldu zen. Hasierako urteetan, herriko orduko bertsolari gazteak, Jon Eiz-

GARAYAR AVTOBYSAK



Urte zaharreko zerbitzuen ordutegia:

- G1 - Hernanitik azkena 20:00etan
- Donostiatik azkena 20:30etan
- G2 - Andoaindik azkena 19:45etan
- Donostiatik azkena 20:30etan
- G3 - Andoaindik azkena 20:00etan
- Ospitaletatik azkena 20:30etan

Urteberriko zerbitzuen ordutegia:

- G1 - Lehenengoa Hernanitik 09:45etan
- Lehenengoa Donostiatik 10:15etan
- G2 - Lehenengoa Andoaindik 09:45etan
- Lehenengoa Donostiatik 10:00etan

G4

gaveko
zerbitzurik
ez da izango

Hernani - Aiete - Donostia - Aiete - Hernani
Andoain - Urnieta - Hernani - Donostia - Hernani - Urnieta - Andoain

Jaregi bailara 17 - Tel.: 943 556 658
Fax: 943 331 208 e-maila: mgarayar@facilnet.es 20120 Hernani (Gipuzkoa)

Allianz

ASEGURUAK

- bizitza -
- istripuak -
- ibilgailuak -
- etxeak -
- komertzioak -
- enpresak -
- ardura zibila -
- finantz aseguruak -
- inbertsioak -

agustin ezponda irizar
agentzia

URTE BERRI ON!!

Nagusia, 13
Telf.: 943 55 73 26
Faxa: 943 33 57 71

DORRONSORO



OKINDEGIA

DORRONSORO

Ogi egin berria
beti zure eskura



Urte Berri On!



1982an errondan parte hartu zuten gazteak: tartean herriko bertsolariak ageri dira: Aristorena, Eizmendi eta 'Anatx'.

mendi, Paulo Joxe Aristorena eta Joxe Mari Mujika *Anatx* aritu ziren bertsotan.

Patxi Odriozolaren aburuz ez ei zegoen ohol-tza hobeagorik, kalean, jendearen inguru-marian kantatzea baino. Bertsolaria, plazagizon egiteko leku paregabea zen kalea bere ustez. Egun, Hernaniko Bertso Eskolaren kimuak aritzen dira errondan bertsotan.

Baita hain kimuak ez direnak ere. Jon Eizmendik (Hernani, 1970), doze-na urte izango zituen lehen aldiz errondan bertsotan atera zenean. Eizmendik, Eskolarteko Bertsolari Txapelketa, 1983 eta 1984an irabazi zituen. Errondan bertso kantari

Bertsolari askorentzat jende aurrean bertsotan ikasteko eskual izan da, eta da, erronda.

atera izan den urte mor-doa ondo gogoan ditu Portu auzokoak. Begirunea dio errondari nahiz eta gazetetan, errondan irten baino bizpahiru egun lehenago, data gogoan, dezente urduritzen zela aitortu.

«Oso gaztetik hasi nintzen. Orain, erronda, ohitura bihurtu da. Gauza normala da. Lehen ez. Hasiera guztiak dira zailak. Kalean kantatzea ez da erraza, eta "jendeak nola erreakzionatuko ote du

gazteok bertsotan hasten garenean?" edota, "ondo egingo al dut bertsotan?", galdetzen nion maiz nire buruari».

Bertsolariaren iritziz, Urte Zaharreko erronda, bat baino gehiagorentzat, jende aurrean bertsotan ikasteko eskola izan da, eta da. «Orain berriz, lotsatia izan arren, gustura aritzen naiz jendartean kantari. Ekimen edo ikuskizun polita da oso erronda».

Urte Zaharreko erronda ez da iragana. Oraina baizik. Abenduaren 31n, udaletxeko arkupepetatik arratsaldeko 17:15etan ir-tengo da. Pasa nahi al du-zu koplak kantari Urte Zaharretik berrira? Zatoz, gonbidatua zaude! ||

Koplaz koplak

Lehen urteetan, Bingen Zupiria eta Patxi Odriozolak sorturiko koplak kantatu ziren kalez kale. Ondoren, Joxe Mari Arrietak ere bere uzta erantsi zuen. Hona, saio bakoitzari sarrera ematen dion koplarekin batera ('Dios te salve...') lehen urte haietako sorta:

'Dios te salve' ongi etorri gabon jainkuak diela, legearekin kunpli dezagun urte berriyan bezpera.

Umore onak bultzata gatoz sutondotikan herrira, koplak kantari pasa gaitzen urte zarretik berrira.

Usariyua ez bada ere hastera goaz kantari, agur esanaz urte zarrari ta berriyai ongi etorri.

Andaluziko lurren antzera legor gure ezta-riak, arren atera ardo pixka bat ito gabe egarriak.

Bake eskean gabiltzan denok, jarrai dezagun lanean, altxa dezagun herri libre bat osasun eta pakean.

Neska apain bat ikusten dut nik gure aurrean dagoela, nobiorikan falta badezu hemen badezu aukera.

Luzatzen ere ari gera ta ez ote dira nahikoak, ondo bukatu lengo zarra ta Urte berri on Jainkoak!

Hernanitik Bilbora

Urteak dira Bingen Zupiria Bilbon bizi dela. «Castaños auzoak, herri txiki baten antza du», gaineratu du. Horregatik, adibidez, ez du bere jaioterria ahantzia. Ezta ohi-turak ere. «Aurten, okerrik ez bada, Urte Zahar egunean kantari irteteko ohitura Bilbon ezarriko dugu», esan du Zupiriak. Duela hilabete batzuk, gau batean, Bilbon bizi den beste hernaniar batekin egin zuen topo. «Berak ere Hernaniko

errondako lehen urteetan parte hartu zuen. Elkar zirikatatu eta esan genuen, 'zergatik ez dugu Bilbon erronda martxan jartzen?' Bi aldiz pentsatu gabe lanean hasi ginen». Hau da, esan eta egin. «Xabier, anaia, garai bateko koplak biltzen aritu da, partiturara transkripzioa egin dugu eta abenduaren 31ean, auzoko kale nagusietatik barrena kantuan bira bat emango dugu ziurrenik», gaineratu du hernaniarrak. ||



Bingen Zupiriak eta Miren Etzanizek, Euskal Herriko hamaika bazterretan jotzeaz gain, urteetan parte hartu zuten errondan.

AITAN-ETXE
TABERNA
ASTEBURUETAN AFARIAK

Urte Berri On!!

Larramendi, 15
Tel.: 943 55 00 46

BigMat Gabonak ondo pasa!
Aricota, s.a.

ALMAZEN MULTIESPEZIALISTAK

ERAIKUNTZA	KOMUNA ETA ITURRIAK
ITURGINTZA	MANPARAK
KALEFAKZIOA	HIDROMASAJEA
GRES ETA AZULEJOAK	KOMUNEKO ALTZARIAK...
PINTURAK	HERREMINTAK
ATE METALIKOAK	LANERAKO BABESA

HERNANI
Eraikuntzarako almazena: Ibaiondo poligonoa 30
Tel. 943 55 06 55
Iturgintzako almazena: Ibaiondo poligonoa 30
Tel. 943 55 20 94
Espozizioa: Ibaiondo poligonoa 30 Tel. 943 33 61 86
DONOSTIA
Espozizioa: Balleneros 10 - Tel. 943 45 11 11

TILIN * TOLON

BELAR DENDA

TERAPIA NATURALAK

Ondo bukatu urtea, eta hobeto hasi berrira!!

TXIRRITA, 10
943 55 56 94

VGALDETXXO Jatetxea

Gabonak ondo pasa!
BAZKARIAK

ETA AFARIAK

Ereñozu auzoa
20120 Hernani (Gipuzkoa)
Tel: 943 55 02 40

AITAN-ETXE
TABERNA
ASTEBURUETAN AFARIAK

Urte Berri On!!

Larramendi, 15
Tel.: 943 55 00 46

Olentzero, errondak, Gabon kantak...

Hernani girotzen ibili dira aurten ere herritarrak

HERENEGUN, abenduaren 24arekin batera, Olentzero iritsi zen Hernanira opariz gainezka, urtero bezala etxe etxe banatzeko prest. Eta hori egun osoan zehar nabaritu zen, goizetik hasi eta afalordura arte Olentzeroekin kale bueltak, errondak eta kantuak izan baitziren nagusi.

Goizean, Hernaniko ikastetxeetako ikasle eta irakasleak ibili ziren kaleak girotzen. Horrez gain, azken orduko opariak egiteko aukera ere jarri zuten Gazte Asanbladakoek, Truke Azoka antolatu baitzuten.

Arratsaldeko lehenengo orduan, berriz, etxe etxe, baserri baserri eta sagardotegiz sagardotegi ibili ziren hainbat herritar Hernanin, Bertso Eskolako kideen eskutik, eta Ereñotzun.

Arratsaldean, baita ere, ez ziren falta izan Gabon kantak. Kantuz Abesbatzako kideak kalez kale ibili ziren Kaxkoan barrena, eta Parrokiko Abesbatzak emanaldia eskaini zuen. Afaldu aurreko azken ordua, berriz, Musika Bandak girotu zuen.

Gabonetan ere Euskal Preso Politikoak eta iheslariak gogoan izan dituzte senide, lagun eta herritarrek. Euren eskubideen aldeko aldarrikapenak kalera atera zituzten arratsaldean Olentzeroekin eta egun osoan zehar elkartasun mariskadarekin. ||



gse
Asesoreak
Urte berri on!
Aholkularitza eta tramitazio zerbitzua
Kardaberaz 40 behea
Telfnoa: 943 55 02 54
Faxa: 943 33 58 01
www.gseasesores.net

CATALANA OCCIDENTE
Aseguruak
Atzeta 30 -
20120 Hernani
Telf - 943-332440
Fax - 943-556602
Urte berri on guztioi!
-Bautista-Biurarena Etxegoien

EDARITEGIA
JOMER
Urte Berri On!
Kale Nagusia, 7
Tel.: 943 55 00 32

URTE BERRI ON GUZTIOI!
HAZI TA HEZI
World Seeds
SENSI SEEDS
DINAFEM
JUANA MARI
Kardaberaz 49 behea HERNANI • 943 553380 • denda@juanamari.org

FUNERARIA
ORBEGOZO
ERRAUSKETAK
24 orduko tfnoa.
943 33 10 20
www.funerariaorbegozo.com



- Zerbitzu partikularrak eta aseguro etxeekin.
 - Beilatokiak.
 - Errausketak.
 - Lekualdatzeak.
 - Eskelak, koroak ...
- Zentrala HERNANI
Latxunbe, 7

Gabonetan Hernani, ekitaldiz ekitaldi

Udazkeneko Txapelketako sariak banatu zituzten

Goiz Eguzkin, Santo Tomas egunez. Goiz Eguzki jubilatutako etxean, Santo Tomas eguna ospatzeaz gain, Udazkeneko Txapelketako sariak banatu zituzten asteartean. Honakoak izan ziren irabazleak: Kartetan: musean, Francisco Hernandez eta Francisco Navas; tutean, Alfonso Lopez eta Jose Villamarin; eskoban, Maria Lunaro eta Javier Garmendia; eta Punttoan, Patxi Apezetxea eta Clementino Baro. Kaleko jokoetan, emakumeetan: tokan, M^a Carmen Arraras; igelan, Eufemia Gonzalez; botean, M^a Carmen Arraras; dardotan, M^a Luisa Cartujo; gizonezkoetan: tokan, igelan eta botean Jose Lopez; dardotan, Jose M. Iglesias. Eta billarrean: Francisco Garcia. Sariak banatu ondoren, txistor-jate ederra egin zuten bazkideek. ||



Jesus Lopez eta Jose Luis Lopez mus txapeldunak eta Isidro Tobar eta Antonio Cano tute txapeldunak, Karabel auzoan. Belkara, Karabeleko auzo elkarteak antolatuta, Mus eta Tute Txapelketak jokatu ziren asteburuan eta irabazleak honakoak izan ziren: Jesus Lopez eta Jose Luis Lopez mus txapeldunak eta Isidro Tobar eta Antonio Cano tute txapeldunak. Guztira hababost bikotek hartu zuten parte eta giro ona izan zen nagusi. Horrez gain, Gabonetako zozketa egin zen eta Xabier Mingo, Benito Gonzalez eta Tomas Rivero izan ziren sarituak. Bakoitzak Eguberri lote bana jaso zuen. Argazkian, txapelketako txapeldunak, azpitxapeldunak eta hirugarrenak ageri dira sariekin. ||

Liburutegia apainduta. Gabonak girotzeko Zuk zeuk egin ezazu leloa erabili dute udal liburutegian eta batetik, apaingarri eta opariak norberak nola egin azaltzen duten hainbat liburu jarri dituzte eta bestetik, liburutegia apaintzeko 0-9 urte bitarteko haurrak gonbidatu dituzte beraien marrazki edo idatziak bertan jartzeko. Parte hartzea handia izan dela azaldu dute eta haurrek oso gustora erantzun dutela. Liburutegiko arduradunek eskerrak eman nahi dizkiete parte hartu duten guztiei. ||



Eskelak

Eskelak ilunabarreko 20:30ak arte jasoko dira. Izen abizenak, eskela jartzen duenak eskatu bezala errespetatuko dira eta funeraria bidez jasotzen den kasuetan, jaso bezala.

ESKERTZA

Maria Pilar Loyarte Erroizarena

(Cristino Albisturren alarguna)

Orain egun gutxi hil zen

- Goian bego -

Pilarren semeak, anai-arrebek eta gainerako ahaideek eskerrak eman nahi dizkizuegu modu batera edo bestera gure ondoan izan zareten guztiei eta baita elizkizunetara etorri zireten guztiei ere.

ESKERRIK ASKO GUZTIAGATIK

Hernanin 2010eko abenduaren 26an



AMAIA
ARRANDEGIA
FRESKO ETA IZOZTUAK
URTE BERRI ON GUZTIO!!!
Kardaberaz 34
Tel.: 943 55 07 52
943 55 22 11
20120 Hernani

OINDI
URTE BERRI ON!!
taberna
NAGUSIA, 25
HERNANI
943 557 509

HATOR
AHOLKULARITZA
Fiskala, laborala
eta Kontabilitatea.
Gure zerbitzuak euskaraz
jasotzeko aukera duzu...
URTE BERRI ON!!
Kardaberaz 60, Hernani
Tel: 943 55 43 12
hator@euskalnet.net

Bikain
OKINDEGI TA GOZOTEGIA
Eguneroko ogia
beti bikain
Urte Berri On!
Eziago poligonoa - Tel.: 943 550089
Elkano 12 - Tel.: 943 553142
Orkolaga 19 - Tel.: 676 78 60 93
20120 Hernani

FUNERARIA VASCONGADA EHORZKETAK
TANATORIOS
HOSPITALE ETA ETXEETAKO 24 ORDUKO ETENGABEKO ZERBITZUA
HERNANI - ASTIGARRAGA - URNIETA - ANDOAIN - GOIZUETARAINO
ERRAUSKETA FUNERARIA VASCONDAKO ERAIKUNTZAN ERREKALDEN
TFNO. IRAUNKORRA
943 332 234
902 402 900
TANATORIO • BEILATOKIA
Urte Berri On guztioi!
Orkolaga, 4
20120
HERNANI

TELEFONOAK ● Taxiak: 943 550093 ● Udaltzaingoa: 943 248900 ● DYA: 943 464622 ● Autobusak: Herri barrukoa: 943 550548 - 625 700769, Garayar: 943 556658, Areizaga: 943 452708, Korreoa Goizueta-Hernani: 948 514037
● Anbulatorioa: 943 006666 ● Jokalari anonimoak: 943 331103 ● Alkoholiko anonimoak: 943 331103
✚ FARMAZIAK ● Egunez: Correa Perkaiztegi 8 - 943 336022 ● Gauez: Chucla Kardaberaz 48 - 943 551793

EGURALDIA ● **GAUR** Giro dotorea baina hotza izango dugu. Eguzkiak ez du gehiegi berotuko eta goizean eta gauean izotza izango dugu. Min.-2° / Max.6°.
● **BIHAR** Eguzkiak eta hegoaldeko haizeak lagunduta temperatura pixkanaka igotzen hasiko da. Hala ere, izotz kontuak izango ditugu oraindik. Min.0° / Max.8°.

❖ BERTSOLATA - ORNITORRINKUS CD AURKEZPENA

Hitzak, notak, hotsak... 'Ornitorrinkus' asteartean

CD berria aurkeztuko dute Maialen Lujanbio, Judith Montero, eta Xabier Erkizia, asteartean, 19:00etan, Milagrosan.

'ORNITORRINKUS' CD berria aurkeztuko dute asteartean, Maialen Lujanbiok, Judith Monterok eta Xabier Erkiziak. Esperimentazio lana da Ornitorrinkus, orain arte zer ikusirik izan ez duten hiru esparru elkartu eta elkar-lanean sortu dutena. Maialen Lujanbio bertso mundutik dator, Judith Montero musika kontemporaneotik, eta Xabier Erkizia musika elektronikotik.

Hirurek, beren betiko esparruetan landu nahi izan dituzte bide berriak, oraindik landu ez zituzten bideak, eta hiru bide horiek elkartuta, *Ornitorrinkus* sortu dute.



Judith Montero eta Maialen Lujanbio, Leokan.

Kontzertuan, komentatu egin nahi dituzte kantak, jendearekin; nondik sortu zen ideia, zer adierazi nahi izan duten, jendeari zer iruditu zaion...

«Saillkazezinen artean sailkatua»

Ornitorrinkus hitzak definitzen du, nolabait, hiru artista horien esperimentazio lana. «Gizarte honek badu joera bat, dena sailkatzeko, eta Ornitorrinkoa da, animalia bat, familia batean sailkatu ezin dena». Horrela dio kanta bateko letrak: «Baldin eta saillkazezina, saillkazezinen artean sailkatua».

Idea horrek biltzen du, gutxi edo gehiago, Ornitorrin-

kusen mamia. Gizarte honek pautak jartzen dizkio artistari, emakumeari, gizonezkoari... denoi, azken batean. Artea, generoa, mundua, pautak batzuren arabera dabil. Hori hautsi, eta bide berriak proposatzen saiatu dira Lujanbio, Montero, eta Erkizia. Lujanbiok horrela dio: «ez dugu orain arteko bidea ukatu nahi. Bakoitzak gure esparruan jarraitzen dugu; baina bagenuen gogoak, nahi bat, gure esparruetan arkatu eta esperimintatzeko».

2007an hasi zuen bidea Ornitorrinkusek, eta orain CD itxura hartu du. Asteartean aurkeztuko dute lana, 19:00etan Milagrosan, hain justu, lehenengo kontzertua eman zuten areto berean, ibilbide bat borobildu nahian. Sarrerak bertan salduko dira, 5 euroan. ||

◆ TXANTXANGORRI



Ezker-eskubi: Iñaki Loiarde, Ramon Izagirre eta Iñaki Esnal.

Izagirre txapeldun

Bigarren eta hirugarren izan dira: Loiarde eta Esnal.

RAMON Izagirrek irabazi du Txantxangorriko 32garren Ehi-za Txapelketa. Bi egunetan jokatu dute txapelketa, eta Izagirrek lortu ditu puntu gehien, 1.016, bi faisan eta 8 eper botata. Iñaki Loiarde izan da bigarren, 910 punturekin, 4 faisan eta 5 eper botata. Hirugarren

postuan Iñaki Esnal geratu da, 714 punturekin, 7 eper botata. Uxukoerreka eta Epelerrekan jokatu dute txapelketa, eta alde aurretik 40 faisan askatu dira, eta 110 eper. 24 ehiztarik hartu dute parte, eta denen artean, 33 faisan bota dituzte, eta 68 eper. ||

❖ IRAGARKI MERKEAK ❖

Neska euskalduna sagardotegi denboraldian lanerako prest: sagardotegitan, ostalaritzan... Harremanetarako: 617 630 528
Pisu bat alokatzen dut Hernanin, Karmelo Labaka kalean. 2 gelakoa, kalefakzio individualarekin. Dotorea. 700 euro. Bankuko abala behar da. Tif: 600609754
Emakume euskaldun bat behar dugu goizez, haurrak jelki arazi, gosaria eman eta eskolara eramateko. Deitu: 661 679 700
ETXEKO KONPONKETAK egiten dira; iturgintza, elektrizitatea, pintura, berogailuak, antenak ere bai... Seriotasuna. Deitu: 616 886 660.
Enara Goikoetxea. Terapija energetikoak, Kristaloterapija, Flores de Bach, Masaje metamorfikoa, Reikia, Tarot terapeutikoa. Tel.: 943-332894 - 649-700762. (Agustindarren plaza 4)
YOLANDA ESTETIKA ZENTRUA. Fotodepilazio berria, prezio bereziak eta pertsonalizatuak. "Fotorejuvenecimiento", Dieta pertsonalizatuak, zure pisua kontrolatzen dugu. Plataforma bibratzailea. Atzieta 2, behea. Tel. 943 55 32 78.
Alicia C.C.: Modu pertsonalean eta profesionalean garapena lortzeko: Coaching, PNL, erlajazioak, Flores de Bach, hipnosia... Deitu: 943 33 28 94 / 653 267 146. (Agustindarren plaza, 4)
Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, akupuntura, ajuste neurologiko eta bertebra, reflexologia, aurikuloterapija... 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)

AURTENGO GABONETAN OPARITU BIDAIAK



SORAYA HOTELA (SUANCES) 40⁵⁰⁰€
Gau 1, PC.

LERMA PARADOREA (BURGOS) 120⁵⁰⁰€
2 gau, AD.

RESERVA DEL SAJA HOTELA (VALLE DE CABUERNIGA) 121⁸⁰⁰€
2 gau, AD. + afari bat + SPA zirkuitoa

ARZUAGA HOTELA (RIBERA DEL DUERO) 210⁵⁰⁰€
2 gau, AD. + afari bat + bisitak

LANZAROTE 375⁵⁰⁰€
Urtarrilean, hegaldia Bilbotik. 7 gau, Htl. 4****, MP.

ISTANBUL 388⁵⁰⁰€
Urtarrilean, hegaldia Madriletik, 3 gau, Htl. 3***, AD.

NEW YORK - BOSTON 1.085⁵⁰⁰€
Urtarrilean, hegaldia Madriletik. 4 gau New York + 3 gau Boston, SA.

OPARI GEHIAGO ERE BADITUGU

vip kofreak

NEKAZAL ASTEBURUA,
ZEN EGONALDIA,
BI LAGUNTZAT SPA...

39⁵⁰⁰€TIK AURRERA

Kontsulta itzazu aukera guztiak!

GABONETAKO ZOZKETA

Ekarri zuen marrazkiak gure bulegora eta parte hartu PORT-AVENTURARA joateko egingo dugun zozketan

ZOZKETA EGUNA: URTARRILAREN 4a GURE BULEGOAN, ARRATSALDEKO SEIETAN.

BALDINTZAK:

Gaia: "BIDAIK"
Adina: 4-11 URTE

EPEA: urtarrilaren 4a

SARIA:

Apirilaren 25etik maiatzaren 1era
Port-Aventuran 6 eguneko egonaldia, pentsio osoan
2 heldu eta 2 umeentzako + 2 egunetako sarrerak edo balokidea

HERNANI

BIDAIK

Urbietan, 6

943 33 00 49

hernanib@teletel.es

www.hernanibidaiak.com

Urte Berri On guztioi!!

